



EUSKAL IRITZI PUBLIKOAREN URTEKARIA 2013

Prensa oharra

Eusko Jaurlaritzako **Prospekzio Soziologikoen Kabineteak Euskal iritzi publikoaren urtekaria argitaratu du**. Bertan biltzen dira 2013an zehar egindako iritzi publikoari buruzko ikerketetan jasotako daturik esanguratsuenak. Argitalpen honen helburua da herritarren eskura jartzea iaz herritar horien lagin adierazgarri bati egindako inkestetan jasotako datuak. Guztira, **10.000 elkarrizketa** baino gehiagotan jasotako informazioa biltzen da.

Ondoko datuok 2013ko euskal **iritzi publikoaren ikuspegi** bat eskaintzen digute:

Euskal herritarren gehiengoa optimista da etorkizunari begira

- EAeko biztanleen %59ak dio **etorkizunari begira** oso edo nahikoa optimista dela.
- Europako Batzordeak egindako **Eurobarometer 78**ko datuekin alderatuta, euskal herritarren pertzepzioa Europar Batasuneko datuen **batez bestekoaren gainetik** dago. Zehatzago, EAE 9. lekuan kokatzen da eta España 20. lekuan.

Herritarrek krisiaren ondorio txarrak hautematen dituzte. Lehentasuna Osasungintza eta Hezkuntzari.

- **Egoera ekonomikoaren** pertzepzio txarra inoizko puntu gorenera iritsi da: %81ek uste dute egoera txarra edo oso txarra dela 2013an.
- **Gastu publikoa** zein arlotan ez litzatekeen murriztu behar galdetuta, herritarren %79k **Osasungintza** aipatu dute lehenengo edo bigarren lekuan, eta %66k **Hezkuntza**.
- EAeko herritarrek 0tik 10erako eskalan 5,7 punturekin baloratzen dute beren etxeko **diru-sarrerekiko poztasuna**. 2003an 6,4koa zen balorazio hori.
- Krisiaren ondorioz, biztanleriaren zati garrantzitsu batek **gastuak murriztu** ditu hainbat arlotan. Gastuak gehien murriztutako arloak ondokoak dira: %60k aisialdiko ohiturak aldatu dituzte, %59k oporretan, %52k arropa eta oinetakoetan, %45ek energia edo etxeko horniduretan, %36k garraioan, %34k janarian eta %26k tratamendu mediku edo hortzetakoren bat atzeratu dute.
- EAeko biztanleen %20k inoiz pentsatu dute **Euskaditik kanpo lana bilatzea**, eta %18k Estatutik kanpo.

Norberaren etxebizitzarekiko poztasunak gora egin du, baina aldatu nahiko luketenen ez dute aukerarik ikusten

- Herritarrek 0-10 eskalan 7,9 punturekin baloratu dute bizi diren **etxebizitzarekiko poztasuna**. 2003an poztasuna txikiagoa zen, 7,4 puntukoa.
- %19k diote hiru urteko epean **etxez aldatzeko** beharra edo asmoa dutela, baina horietatik %64k horretarako aukera gutxi edo batere ez dute ikusten.

Herritarrek diote prest daudela ingurumenagatik ohiturak aldatzeko, baina gehienek energia alternatiboan alde egiten dute gaur egungo bizimoduari eusteko

- Herritarren %78k diote prest daudela ohitura batzuk aldatzeko, **ingurumena gehiago errespetatzeko** helburuarekin.
- Gure bizimoduak petrolioarekiko duen dependentzia handia ikusita eta baliabide hori agortzeko perspektibaren aurrean, herritarren %60k gaur egungo bizimoduarekin jarraitu ahal izateko **energia iturri alternatiboak** bilatzearen alde egiten dute, eta %32k, aldiz, energia kontsumoa murriztearen alde, horretarako gure bizimodua aldatuz.

EAeko hezkuntzari buruzko iritzi ona eta LOMCErekiko kontraktasuna

- Herritarren %61ek uste dute **Hezkuntza** hobea dela EAEn Estatuan baino eta %21ek antzeko maila dutela.
- EAeko biztanleriaren iritzia erdibitu egiten da **Hezkuntzara bideratutako baliabideak** baloratzean: %44k egokiak direla uste dute eta %45ek behar direnak baino gutxiago direla.
- %5 bakarrik agertzen dira **LOMCE**rekin oso edo nahikoa ados, %52 aurka daude. Lege horren inguruko ezjakintasuna altua da, %42k ez dute hari buruz ezer entzun edo ez dute iritzirik eman.

Autogobernu handiagoa ekonomiarako faktore onuragarri bezala

- Herritarren %46k diote **autogobernu handiagoa** euskal ekonomiarentzat onuragarria litzatekeela, %26k ez litzatekeela ez onuragarria ezta kaltegarria ere eta %14k bakarrik diote kaltegarria litzatekeela.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago: www.euskadi.net/ikerketak_sociologikoak